

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Uztailaren 3ra arte zabalik izango da iraileko EGA azterketetara aurkezteko izena emateko epea

*Matrikularen tasa orokorra 26 euro da, eta familia ugariak nahiz terrorismoaren biktimek beherapenak izango dituzte*

Jueves, 25 de junio de 2015

Hezkuntza Departamentuak uztailaren 3ra arte zabaldu du 2015eko Euskararen Gaitasun Agiriaren (EGA) azterketako bigarren deialdirako matrikula-epea; azterketa hori irailean egingo da.

Azterketara aurkezteko tasa orokorra 26 euro da, eta 13 euro lehen mailako familia ugarietako kideentzat. Bigarren mailako eta terrorismoaren biktimeentzat, berriz, matrikula doan da.

Izena emateko inprimakia, ordainagiriarekin eta eskatutako gainerako dokumentazioarekin batera, [Nafarroako Gobernuko erregistro](#)etako batean aurkeztu beharko da, [30/1992 Legearen](#), Administrazio Publikoen Araubide Juridikori buruzkoaren, 38.4 artikuluan ezarritako beste edozein bulegotan edo Internet bidez, Foru Gobernuko [izapideen katalogoan](#).

Azterketa egin dezakete 2014ko abenduaren 31n 16 urte beteta zuten pertsonak. Nolanahi ere, kanpoan geratuko dira ere, aurtengorako beste erakunde batek deitutako EGA azterketetan matrikulatu direnak.

### Proben xehetasunak

Azterketak hiru proba izango ditu: atarikoak, idatzia eta ahozkoa.

Haietako lehenak, atarikoak, test erako 90 galdera ditu eta, haien bidez hautagaiek hizkuntzaz duten ezagutza ebaluatzen da era ohikoan erabilitako gramatika-gai eta hizkuntz baliabideen bidez; horrekin batera, ahozko ulermeneko eta irakurmeneko proba bat ere izango da.

Bestalde, idatzizko proba bi zatik osatzen dute: idatzi labur batek (gutxienez 150 hitzeko gutuna, oharra edo antzekoa), eta beste zabalago batek (250 hitzeko testu bat, gutxienez) epaimahaiak proposatuko duen gai edo egoera bati buruz.

Azkenik, ahozko proba bi zatik osatzen dute: bost minutuko ahozko azalpenak, alde batetik, eta bertan epaimahaiak proposatutako testu bati buruz hitz egingo da; bestetik, hautagaien artean hamar minutuko eztabaida egingo da aurrez azaldutako gaiei buruz.

Titulua eskuratzeko, hiru probak gainditu behar dira.